

MODULUA: KOMUNIKAZIORAKO TRESNAK

IKASLEAREN GIDA. HAUR HEZKUNTZA

2021/2022

Zentroa: Hezkuntza eta Kirola Fakultatea

Moduluaren izena: *Komunikaziorako tresnak*

Ikasturtea: Bigarrena

Lauhilabetekoa: Lehenengoa

Moduluko irakasleak:

Haurtzaroren Psikologia	Iratxe Antonio	iratxe.antonio@ehu.eus	2.5 bulegoa
	Eider Goñi	eider.goni@ehu.eus	2.13 bulegoa
	Naiara Escalante	naiara.escalante@ehu.eus	
Komunikazio Gaitasunaren Garapena II	Amaia Elizalde Estenaga koordinatzailea	amaia.elizalde@ehu.eus	PDI 02 bulegoa
Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza	Dorleta Apaolaza Llorente	dorleta.apaolaza@ehu.eus	2.1. bulegoa
	Olatz Aranguren	olatz.aranguren@ehu.eus	
Ikastetxearen Antolakuntza**	Maitane Basasoro	maitane.basasoro@ehu.eus	PDI 02 bulegoa
Informazio eta komunikazio teknologiak**			

** Nahiz eta lehenengo lauhilabetean eman, K4 moduluan landuko dira gehienbat

1. MODULUAREN KONPETENTZIAK

M1. Ezagutza praktikoa hartzea, haurren gelan eta eskola inguruan errealitatea behatzeko, datuak jasotzeko eta balioesteko teknikak erabiliz.

M2. Esperientzia eremu desberdinen printzipioak ezagutzea, bere baliabide didaktiko zehatzak ezarriz irakaslanari hurreratzean.

M3. IKTak erabiltzea, norberak ikasteko eta lankidetzan aritzeko, ezagutza eraldatzeko, era guztietako baliabide grafikoak eta multimediak erabiliz.

M4. Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen komunikazio konpetentziak garatzea, Europako erreferentzia markoko B2 maila lortu arte.

2. DIZIPLINARTEKO LANAREN GAIA: PANTAILEN ERABILPENA ETA ERAGINA HAURTZAROAN

Diziplinarteko lan honen bidez nagusiki ikasleek ikuspegi zabal bat lortuko dute pantailek hezkuntzan duen inplikazioaz haur hezkuntzari dagokionez. Lanaren aberastasunak praktikarekin hartu-emana izateko aukera ematen du, eta hala, prestaketa eta hausnarketa teorikoa osatu egingo da praktiketan agertzen diren behatze eta aurkikuntzekin (funtsean, egin beharreko practicum egonaldiaren bidez).

Proposatutako lanerako dokumentuek agertzen dutenez (ikus erreferentziatzko bibliografia), benetan kezkatzekoa da zenbat ordu ematen duten haurrek telebistaren eta bestelako pantailen aurrean, urte osoa aintzat hartuta eskolan pasatakoak baino gehiago izaten baitira; hori kezkagarria izanik, beste kezka eragile batzuk ere badira: eduki askok duten heziketa-xede eskasa eta umeek benetakoa eta asmatua bereizteko izan dezaketen zailtasuna, besteak beste. Zailtasun hori are larriagotu daiteke umeak bakarrik badaude, hau da, guraso, aitona-amona edo bestelako zaintzailerik ez badago, edukien aurrean haurraren jarrera aktibo bat eragiteko, pantailan agertzen denaren eta eguneroko jardunean berak bizi duenaren artean bereizten lagunduz.

Pantailek hezkuntzan duten eraginaz ikuspegi zabal bat eduki nahiak, nahitaez garamatza lehen hausnarketa teoriko batetara. Hausnarketa horrek bide eman

behar du errealitatera gerturatzeko, eta hala, zuzeneko murgiltzea egingo da ikastetxeko egonaldian. Errealitatera hurreratzearen xedea egunero haurrei eskaintzen zaizkien eduki motak ezagutzea da, eta haien azterketa zehatzago bat egitea, irizpide jakin batzuen arabera: kulturaren irudia, generoaren tratamendua, sexualitatea, bortizkeria..., arreta berezia eskainiz horiek haurren jokabidean izan dezaketen eraginari.

Ikastetxeko egonaldian behatze aktiboa egingo da, datuen jasotzea eta aztertzea: alde batetik, ikastetxeko baliabideak ezagutuko dira, eta horiek erabiltzeko era; beste alde batetik, haurrek egunerokoan dituzten ohiturak ezagutuko dira, eta ohitura horiek haiengan duten eraginaz ohartzen ote garenaz hausnartu.

Praktikaldiko egonaldian jaso eta aztertutako datuek erronka profesionalaren aurrean jarriko dute ikaslea, eta horixe lortu nahi da, hain zuzen, diziplinarteko lanaren bidez: behatze aktiboaren bidez lortutako datuen arabera, ikasleek familientzako gomendioak emanaz ahozko aurkezpen bat egin beharko dute pantailen kontsumo arduratsuz, ohitura osasungarriez eta erabilpenaz. Aurkezpena praktiketako ikastetxeetako Guraso Elkarteei zuzendua izango da eta komunikazio egoera hori simulatuz egingo da; datu orokorretara mugatzeaz harago, gomendioak eskaintzen saiatu behar da, bildutako informazio dokumentalaren eta praktiketan aztertutako eskola-giro jakinaren arabera.

3. ENTREGAIAK

3.1. Lan zientifikoa

Moduluaren oinarri garrantzitsuenetako bat egindako lan guztiak izan behar duen izaera zientifikoa da. Alderdi hori are gehiago islatu beharko da egingo den idatzizko txostenean, 7 orrialdetan gehienez eta artikuluko zientifikoko baten egitura jarraituz:

- Izenburua
- Laburpena eta hitz gakoak
- Marko teorikoa
- Metodoa: helburuak, lagina, tresnak, prozedura eta analisia
- Emaidzak
- Ondorioak eta gomendioak

Marko teorikoa gauzatzeko, ikasleek eskura izango dituzte irakasleek emandako sei nahitaezko argitalpen zientifiko (erreferentzien atalean eskura). Horiez gain,

taldeek gutxienez beste lau artikulu zientifiko landu beharko dituzte marko teoriakoa osatu ahal izateko.

Hausnarketa teorikoa moduluko ikasgaietan oinarritu behar da eta, era berean, hausnarketa horrek praktikaldian aurrera eramango den ikerketaren oinarriak gidatuko ditu. Adibidez, ondorengo gida puntu hauek iradokitzen ditugu, moduluko ikasgai bakoitzak ondoen iruditzen zaizkionak jar baditzake ere:

- o Telebista eta bestelako pantailak, inguru kulturalaren parte.
- o Zer esan nahi dugu telebista hezitzailea diogunean?
- o Programa hezitzaileak / programa ez hezitzaileak.
- o Imitazioa eta honen garrantzia nortasuna garatzerakoan, genero ikuspegiari berebiziko garrantzia emanaz.
- o Heziketarako edukien azterketa eta balioespena telebistan: (telebista kateren baten haurrentzako programazioaren azterketa egin daiteke).
 - Kulturaren irudia.
 - Genero tratamendua.
 - Sexu edukia.
 - Bortizkeria edukia.
 - Haurren jokabidean izan dezakeen ondorioa.

3.2. Infografia

Txosten zientifikoan agertzen diren ekarpenak infografia batetan islatu beharko dira. Bertan marko teorikoa, landa-ikerketa, ondorioak eta gomendioak agertu beharko dira, modu bisual eta erakargarri batetan.

Canva programa erabili beharko da, bere doahako bertsioan: <https://www.canva.com/>. Poster edo A4 dokumentu formatoak erabiliko dira infografiaren diseinua aurrera eramateko. Edukia antolatzeke txantiloiak egon badaude ere, originaltasuna eskatuko da lanean.

Infografiak txosten zientifikoarekiko izan beharreko harremana zuzena da. Txosten teorikoaren eranskin moduan entregatuko da, inprimatuta (pdf) eta web-estekaren bitartez.

3.3. Ahozko aurkezpena

Txosten zientifikoan bildutako eta infografian laburtutako informazioa ahozko aurkezpen baten bidez ere adieraziko da, simulazio bat eginez. Jarduera honekin hezkuntzako testuinguru formaleko ahozko komunikazioari lotutako hainbat eduki teoriko praktikara ekarriko dira. Aurkezpen horietan hizlariiek aditu nahiz zuzendaritza rola hartu beharko dute eta Guraso Elkarteko kideei ariko balitzaizkie bezala mintzatu beharko dira.

Aurkezpen bakoitzak 15-20 minutuko iraupena izango du eta euskarri bakarra infografia izango da. Aurkezpenaren ostean galde-erantzunetarako 10 minutu ere izango dira.

4. AURREIKUSITAKO LAN FASEAK

Moduluak hiru atal garrantzitsu izango ditu: txosten teoriko-praktikoa, infografia eta ahozko aurkezpena. Txosten praktikoak *artikulu zientifiko* baten eskema jarraituko du: testuinguru teorikoa, metodologia, emaitzen analisia, ondorioak eta gomendioak. Infografiak txostenaren atal hauen emaitza nagusiak azaldu beharko ditu. Azkenik, aurkezpenean eduki berdinak jorratu beharko dira, baina testuinguru zehatz batetara egokituz: Guraso Elkarteko kideei zuzendutako hitzaldi bat.

4.1. KRONOGRAMA

	Astea	data	Eginbeharrak	Entregaiak
I r a i l a	1	13-17	Moduluaren aurkezpena eta oinarriak Taldeen osaketa	
	2	20-24	Artikuluaren lanketa	21 (15:00) <i>Talde kontratua e-gela</i>
	2	20-24	Behaketa taulak sortu	
PRAKTIKALDIA (3.-7. asteak)				
A z a r r o a	8	1-5		
	9	8-12	1 entrega: . Txosten teorikoa + infografia . Behin-behineko koebaluzioa	9 (15:00) <i>e-gela</i>
	10	15-19	Irakasleen feedback	
	11	22-26		
	12	29-3	Behin-betiko entrega: . Txostena + infografia . Behin-betiko koebaluzioa	30 (15:00)
A b e n	13	6-10	Aurkezpen astea	*aurkezpena
	14	13-17	Aurkezpen astea	*aurkezpena

d u a	15	20-22	Aurkezpen astea	*aurkezpena
-------------	----	-------	-----------------	-------------

*Aurkezpen egunean ko-ebaluazioa eman beharko da.

4.2. FASEAK

Diziplinarteko lana ondoren esango ditugun **hiru fasetan** egingo da:

1. DOKUMENTAZIO FASEA (PRAKTIKALDIKO EGONALDIA BAINO LEHEN): 1. eta 2. asteetan

Lanaren lehen fasean, Practicum egin aurreko asteetan egiten den horretan, lana gauzatu ahal izateko esparru teorikoari lehen hurbilpena egin behar zaio, eta erraztu egin behar da praktikaldiko esperientziaren hezkuntza girora hurreratzea.

Lehenengo aste hauetan ikasleek txosten zientifikoa eta infografia eratzeko baliabideak ezagutuko dituzte, hala nola: canva programa, bilaketa zientifikoak egiteko internet baliabideak, behaketa metodologia, eta artikulu zientifiko baten egitura.

2. BEHAKETA ETA DATU BILKETA FASEA (PRACTICUM EGONALDIAN): 3. - 7. asteetan

Lanaren esparru teorikoa gauzatzearekin batera, practicumaren egonaldiak bide ematen du esparru teorikoan jarri diren hainbat gauza errealitatearekin alderatzeko. Praktikaldiko esperientziaren xede nagusia, ahaztu barik lehen harreman bat dela, behatze aktiboa egitea da, honek aukera ematen duelako proposatutako gaiaren inguruan zenbait datu interesgarri jaso eta aztertze. Ikastetxeetan dauden baliabideen eta hauen erabileraren berri zehatza eskuratzeaz gain, neska-mutikoekin harreman zuzena izateak, eta haien familiekiko balizko harremanak, bide emango du haien ohiturak aztertze, eta behatzeko ohitura horiek haiengan eraginik duten probatzeko. Praktikaldian, lanaren gaia bide ona

izan daiteke hurrekin eta hauen inguruarekin aritzeko, bai elkarrizketa informalean bidez, bai aurrez tutorearekin hitzartutako saioen baten bidez.

Honako alderdi hauek, adibide direla soilik jakinik, kontuan har daitezke practicumeko egonaldian baliatzeko:

- Ikastetxean telebista eta bestelako pantailak nola erabiltzen diren aztertzea.
 - o Ikastetxeak dituen IKTak eta horien kokapena eta erabilera.
 - o Telebistarekin lotutako toki eta materialak .
 - o Materialak eta telebista erabilera ingurunearen ezagutzarako.
 - o Nola erabili asmo dute telebista eta IKTak zikloetako taldeetan?

Hala ere, datuen bilketa ikastetxean egiteaz gain, kanpoan ere egingo da, haurrak pantailekin kontaktuan dauden eta ikasleak eskura dituzten egoeratan, (etxean, plazan, ludoteketan, ...)

- Pantailei dagokionez, datu bilketa gidatuko duten adibideak:
 - o Batez beste zenbat ordu ematen dute hurrek etxean telebista ikusten/ edo bestelako pantailen aurrean?
 - o Etxean, zenbatek daukate telebista/ordenagailua/tableta/ gelan bertan?
 - o Gurasoen esku-hartzea telebista eta bestelako pantailak erabiltzeko orduan.
 - o Zein telebista eduki mota bultzatu nahi dute gurasoek? Zein eduki baztertzeko dituzte sistematikoki beren seme-alabengandik?
 - o Zein telebista eduki dira kontsumitu ohi dituztenak?
 - o Zer nolako jolasak/programak erabiltzen dituzte ordenagailuan eta bestelako pantailetan? Zertarako erabiltzen dituzte?
 - o Practicumean egin dugun egonaldian zein jarrera ikusi ahal izan ditugu haurrengan?
 - o Telebista edukien eragina imitazioan (jantziak, osagarriak, jarrerak eta jokabideak...).
 - o Telebistako edukiek haurren hizkeran duten eragina.

3. INFORMAZIOAREN ANTOLAKETA ETA LANKETA MAPA KONTZEPTUAL BATEAN ETA GURASO ELKARTEARI GOMENDIOAK EMATEKO AHOZKO AURKEZPENA FASEA: 8. - 15. asteetan

Praktikalditik bueltan txosten teorikoa eta infografia garatu beharko dira, praktiketako egonaldian egindako behaketa eta jasotako datuen azterketarekin. Ikasleek bi entregai eman beharko dituzte; behin-behinekoan irakasleen feed-backa jasoko dute behinbetikoa eman baino lehen beharrezkoak diren aldaketak edo hobekuntzak egin ahal izateko.

Abenduan Guraso Elkarteentzako gomendioekin egin beharreko ahozko aurkezpena landuko da, praktikaldietako ikastetxeetan azaltzeko, horren aurkezpenarekin batera. Aurkezpen honek balioko du ikasleen hausnarketa eta

sintesarako ahalmena neurtzeko, baita komunikazio gaitasun grafikoa eta bisuala ere.

Esan bezala, ikasleek, aditu eta zuzendaritza taldeko rolak hartuz, ahozko azalpen bat eman beharko dute Guraso Elkartearen aurrean; azalpen horrek bai ahozko kompetentzia bai hartzailearen araberrako diskurtsoaren egokitasuna neurtzeko balioko du.

Hirugarren fase honek diziplinarteko lan hau egitean ikasleek aurrean duten erronka profesionala burutzen du.

5. LANERAKO METODOLOGIA

Lan interdiziplinar hau taldeko zeregin kooperatiboa izanik, ikasleek Haur Hezkuntzako graduako 2. mailako 1. lauhilabete honetan dituzten irakasgaietan lortutako gaitasunak trebatzeko eta sustatzeko aukera izango dute, metodo zientifikoa jarraituta. Horretarako, analisirako, sintesarako, digitalak eta trebetasun zientifikoak erabilia, lortutako informazioa adieraziko dute, formato akademikora egokituz, baita irudi-grafikoen bitartez. Horrela, egindako lan zientifikoa sortuko den infografiaren oinarria izango da; bestalde, bai lan zientifikoa, bai infografia, ikasleek egingo duten ahozko aurkezpenaren oinarri eta euskarriak izango dira.

5.1. Funtzionamendu praktikoa

Moduluko diziplinarteko lana 4 ikasleko taldetan egingo da. Lan taldeen eratzea ikasleek adostuko dute; hala, practicumak lanean duen garrantziak bi aukera dakartza taldeak eratzeko:

- o **Praktika zentro berean dauden ikasleek eratutako taldea:** Lana egitea erraz dezake, ikastetxe berean behaketa egin eta datuak jaso eta aztertzeak ikuspegi bateratuagoa emango baitu, eta hala, gomendioen triptikoa inguru jakin baterakoa izango da.
- o **Zentro desberdinetan dauden ikasleek eratutako taldea:** Kasu honetan, ikuspegi anitzagoa aurki dezakegu, baina leku bereizietan egon daitezkeen inguruetan behaketa eta datu biltze eta azterketa egiteak haien artean alderatzea egiteko bidea emango du.

Kasuistika horiez gain, lan taldeak eratzeko orduan, ikasleei gomendatzen zaie kontuan izan dezaten lana ongi egiten lagun dezaketen zenbait irizpide: Alde batetik, eraginkortasun maila egoki bat lortzeko aurreikuspena, eta horri lagunduko dio aurretik harreman pertsonala eta lanekoa egoteak, eta baita taldeko kideak elkarrengandik gertu bizitzeak ere.

Taldeen osaketa **lehenengo astean** adostu behar dute ikasleek eta irakasleetako batek jasoko du horren berri. Honek ondoren taldeen zerrenda pasako die beste irakasleei (lan taldeak, jakina, berbera izan behar du moduluko ikasgai guztietan).

5.1. Diziplinarteko lanaren garapen metodologikoa

Moduluaren oinarrietako bat praktikaldian egonaldian egin beharreko ikerketa izango da. Horretarako, praktikaldiaren aurretik informazio iturri primarioen bilaketan eta irakasleek eskainitako nahitaezko irakurketen bitartez pantailek haurtzaroan duten eraginaz jabetuko dira ikasleak; horretaz gain, praktiketako ikasleen edota inguruko haurren behaketa egiteko indikadoreak identifikatu eta erregistro fitxa eraikiko dute. Aurretiko informazioaren (ikasleek egindako bilaketa eta irakasleek eskainitako irakurgaiak) eta praktikaldian betetako behaketa-erregistroaren bitartez lortutako informazioa oinarri gisa harturik ikasleek idatzizko **LAN ZIENTIFIKOA** gauzatuko dute, irakasleek emandako argibideen arabera.

Lanaren garapen metodologikoaz mintzatzean ere, derrigor aipatu behar dugu horretarako hautaturiko tresna, **INFOGRAFIA** izenekoa (canva). Gaur egun Hezkuntzan oso hedatua dagoen erreminta da, *visual thinking*-aren harira, edukiak laburtzeko eta mezuak modu erakargarri batean zabaldu ahal izateko. Infografia irudikapen bisual informatibo bat da, nolabait testua laburbiltzen duena, figuratiboki azaltzen duena. Bertan, grafiko eta zeinu ez-linguistiko mota ezberdinak daude.

Hala, tresna honrren bidez egindako lan zientifikoa ikus daiteke laburbilduta, izandako garapenetik ikerketa gauzatu ondoren lortutako emaitzetaraino. Laburtuz, esan dezakegu ikasleek tresna honen bidez sintetizatu behar dutela txostenean jasotako lana, gurasoen aurrean egingo den aurkezpenaren oinarria izan dadin. Azken batean, infografiak garrantzi handia hartzen du lanaren bilakaeran, tresna oinarrizko horren bidez egin ahal izango da, azkenean, gomendioen **AHOZKO AZALPEN**aren prestaketa.

Txostena eta infografia egin eta gero, azken pausoa AMPA/IGeri zuzendutako ahozko aurkezpen bat egitea izango da. Beraz, hizlariak aditu eta zuzendaritza taldeko kidearen rola hartu beharko dute, eta entzuleek guraso taldearena. Edukiak barneratu diren ala ez kontuan hartuko da, baina azken fase honetan garrantzia berezia emango zaio ahozko komunikazio gaitasunaren garapenarekin lotutako edukiak praktikara ekartzeari.

6. MODULUKO LANAREN EBALUAZIOA

6.1. Ebaluazioaren alderdi orokorrak

Ebaluatzeko bi modalitate egongo dira, bata aurrez aurreko ikasleentzat eta bestea aurrez aurreko ez diren ikasleentzat. Aurrez aurreko ebaluazioa egin ahal izateko, irakasgai guztietan ebaluazio mota hau aukeratu behar izango da. Irakasgai batean etangabeko ebaluazioari uko egiten badu ikasleak, azken ebaluazioa egiten duten ikasleentzat aurreikusitako planteamendua jarraitzea ekarriko luke

Bestetik, moduluetakako akordio gida jarraituz, gogoarazaten da hiru ikasgaietan baino gutxiagotan matrikulatuta dauden ikasleek ez dutela k3 modulua egin behar izango.

Aurrez aurreko ikasleentzako ebaluazioa

- Aurrez aurreko ikasleak erreferentziatzat hartuko du ikaslearen gida honetan zehaztutako **lanaren kronograma**.
- Modulu lana egiteak, **txosten zientifikoa eta infografia eratzea** eskatzen du eta **Guraso Elkarteei zuzendutako gomendioak ematea eta azaltzea**.
- Lana 4 ikasleko taldeetan egingo da.
- Lanaren orokortasunari erantzuteko, ezinbestekoa da lanean modulua osatzen duten diziplinen ikuspegi guztiak kontuan hartu eta islatzea. Izan ere, horregatik du diziplinarteko izaera. (Moduluetakako akordio gida)
- Modulu-lanaren kalifikazioa **ikasgaiaren kalifikazioaren bi puntu** izango da (%20). Kalifikazio hau moduluko irakasle guztiek adostuko dute eta diziplina bakoitzaren ebaluazioari gehituko zaio. Lana gaindituta baldin badago eta ikasgaia gainditu gabe, LANAREN NOTA GORDE EGINGO DA IRAKASGAIK GAINDITU ARTE.
- Modulu lanean plagioa detektatuz gero, lana automatikoki suspendituta egongo da, eta hurrengo deialdietan azken ebaluazio sistemaren bidez ebaluatuak izango dira inplikaturako ikasleak. (Moduluetakako akordio gida)

Aurrez aurreko ikasleek lana gainditzen ez badute:

Hurrengo deialdian gainditu beharko dute hura hobetuz (lana berriro zuzenduko da taldean). Modulua giltza den ikasgaietan, ikasleak ikasgaia suspendituta izango du modulua gainditu arte.

Aurrez aurreko ez diren ikasleentzako ebaluazioa

- Aurrez aurreko ez den ikasleak ebaluatzeko irakasgai bakoitzeko **proba espezifikoak** erabiliko dira.
- Irakasgai bakoitzeko proba batzuk **moduluko lanari** buruzkoak izango dira.

- Modulu lanari dagozkion probak **2 puntu** balioko ditu.

** Graduko ikasgaietan azken ebaluazioren bidez ebaluatuak izateko prozedimendua gogoarazten da. Konkretuki, inplikaturako irakasleei [etengabeko ebaluazioari uko egiteko eskaera](#) idatziz luzatu beharko zaie (9. astea baino lehen lauhileko irakasgaien kasuan, eta 18. astea baino lehen ikasturte osoko irakasgaien kasuan).

6.2. Atalen ebaluazioa

Idatzizko atala (txosten zientifikoa + infografia)	% 60
Aurkezpena	%40

7. ERREFERENTZIAK

Nahitaezko irakurketak

Del Río, P., Álvarez, A., eta Del Río, M. (2004). La televisión educativa. *Pigmalión. Informe sobre el impacto de la televisión en la infancia* -n. Madrid: Fundación Infancia y Aprendizaje.

Espinar, E. (2007). Estereotipos de género en los contenidos audiovisuales infantiles. *Comunicar, Revista de Comunicación y Educación*, 29, 129-134.

Galán Fajardo, E. (2007). Construcción de género y ficción televisiva en España. *Comunicar, Revista de Comunicación y Educación*, 28, 229-236

González-Anleo, J. M., Cortés del Rosario, M., eta Garcelán Vargas, D. (2018). Roles y estereotipos de género en publicidad infantil. ¿Qué ha cambiado en las últimas décadas?, *aDResearch: Revista Internacional de Investigación en Comunicación*, 18, 80-99.

Reizabal, L. (2012). Beste hezkuntza testuinguru batzuk: ikus-entzutezkoak. *Hezkuntza sozioemozionala eta ikaskuntza-zailtasunak: hezkuntza testuinguruetan aplikatzeko esku-hartzea* - n, 141-151 orr. Donostia: ueu.

Torres, E., Conde, E., eta Ruiz, C. (2001). La influencia de las pantallas en el desarrollo socioafectivo. F. López (Koor.), *Desarrollo afectivo y social* – n, 285-302 orr. Madrid: Pirámide.

8. ERANSKINAK

8.1. ERRUBRIKA

8.2. KO-EBALUAZIOA

8.3. TALDE KONTRATUA

8.1. ERRUBRIKAK

LAN ZIENTIFIKOA ZUZENTZEKO ERRUBRIKA				
	GU-1	NA-2	O/00-3	BI-4
EGITURA ETA GARAPENA	<ul style="list-style-type: none"> - Ez dira lan zientifikoaren atal guztiak islatzen. - Atal batzuk beste batzuk baino askoz garatuago daude, ez dago orekarik. - Atal nagusiak (marko teorikoa, metodoa, emaitzak eta ondorioak) ez dira nahikoa garatzen 	<ul style="list-style-type: none"> - Lan zientifiko baten atal guztiak islatzen dira. - Atal nagusietako (marko teorikoa, metodoa, emaitzak eta ondorioak) batzuk ondo garatuta dauden bitartean, beste batzuk ez dira nahikoa garatzen 	<ul style="list-style-type: none"> - Lan zientifiko baten atal guztiak islatzen dira. - Atal nagusiak (marko teorikoa, metodoa, emaitzak eta ondorioak) ondo garatuta dauden bitartean, beste batzuk ez dira nahikoa garatzen 	<ul style="list-style-type: none"> - Lan zientifiko baten atal guztiak islatzen dira. - Atalak (marko teorikoa, metodoa, emaitzak eta ondorioak) modu orekatuan garatuta daude, emandako espazioa (7 orrialde) ondo aprobetxatu delarik.
EDUKI TEORIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> - Ez dira eduki minimoak txertatzen marko teorikoan: pantaila motak/eragin onak/eragin txarrak/estereotipoak/balioak/garapen psikologikoa. - Emaitzetan eduki praktikorik (behaketa erregistroan eta elkarrizketetan lortutako datuak) ez da gehitu emaitzen atalean. - Ondorioen atalean lortutako emaitza nagusiak ez dira baloratzen, ezta aurrekari teorikoekin lotzen. - Gomendioak ez dira ondorioztatzen aurrekari teoriko eta lortutako emaitzetatik. 	<ul style="list-style-type: none"> - Eduki minimoak modu oinarrizkoan azaltzen dira. - Oso eduki praktikoko gutxi gehitu dira emaitzen atalean. - Ondorioen atalean emaitza gutxi batzuk besterik ez dira baloratzen eta aurrekari teorikoekin lotzen. - Gomendio gutxi batzuk besterik ez dira ondorioztatzen aurrekari teorikoetatik eta lortutako emaitzetatik. 	<ul style="list-style-type: none"> - Eduki minimoak txertatzen dira / Eduki minimoak ondo azaltzen dira. - Eduki praktikoko gehienak gehitu dira emaitzen atalean. - Ondorioen atalean emaitza gehienak baloratzen eta aurrekari teorikoekin lotzen dira. - Gomendio gehienak ondorioztatzen dira aurrekari teorikoetatik eta lortutako emaitzetatik. 	<ul style="list-style-type: none"> - Eduki minimoak azaltzeaz gain, eduki osagarriak egoki azaltzen dira. - Eduki praktikoko guztiak gehitu dira emaitzen atalean. - Ondorioen atalean emaitza guztiak baloratzen eta aurrekari teorikoekin lotzen dira. - Gomendio guztiak ondorioztatzen dira aurrekari teorikoetatik eta lortutako emaitzetatik.
ASPEKTU FORMALAK	<ul style="list-style-type: none"> - Ez dira APA7 arau ugari errespetatzen. - 9/12 akats ortografiko larri (12 baino gehiago egitekotan, lana suspendituta egongo da, zuzenean) daude. 	<ul style="list-style-type: none"> - APA7 arauetatik gutxienez aipua egiteari eta erreferentzia bibliografikoei dagozkienak errespetatzen dira. - 7/8 akats ortografiko larri daude. 	<ul style="list-style-type: none"> - APA7 arau gehienak errespetatzen dira. - 5/6 akats ortografiko larri daude. 	<ul style="list-style-type: none"> - Eskatutako APA7 arau guztiak errespetatzen dira. - Gehienez 4 akats larri daude (ergatibo, komunztadura, deklinabide zein aditzean aurki daitezkeen oinarrizko erroreak).

INFOGRAFIA ZUZENTZEKO ERRUBRIKA				
	GU-1	NA-2	O/00-3	BI-4
EDUKIA	<ul style="list-style-type: none"> - Kontzeptuak luzeegi azalduta daude. - Ideia nagusi asko falta dira. - Ideiak asko errepikatzen dira - Txostenaren diskurtsoa ez da jarraitzen 	<ul style="list-style-type: none"> - Kontzeptuak luzeegi azalduta daude. - Ideia nagusi batzuk falta dira. - Ideia batzuk errepikatzen dira. - Txostenaren diskurtsoa jarraitzen da, eta atal guztiak agertzen dira nahiz eta batzuetan ildoak galtzen den 	<ul style="list-style-type: none"> - Ideiak kontzeptu gako gisa jasota. - Ideia nagusi gehienak jaso dira. - Ideia bakarra errepikatzen da. - Txostenaren diskurtsoa guztiz jarraitzen da eta atal guztien garrantzia agertzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ideiak kontzeptu gako gisa jasota. - Ideia nagusi guztiak jaso dira. - Ideiak ez dira errepikatzen. - Txostenaren diskurtsoa guztiz jarraitzen da eta atal bakoitzaren garrantzia argi ikusten da modu orekatu batetan.
ESTILOA	<ul style="list-style-type: none"> - Ez da batere bisuala: ez irudirik, ez kolorerik... - Informazio gehiegi/gutxiegi dago. - Zuzentasun akats asko daude. - Ikerketaren ildoak ez da jarraitzen 	<ul style="list-style-type: none"> - Ez da estilo bisuala asko landu. - Atal batzuetan informazio gehiegi/gutxiegi dago. - Zuzentasun akats batzuk daude. - Ikerketaren nondik-norakoak desberdintzen dira 	<ul style="list-style-type: none"> - Estiloa landu da. - Informazio kopuru egokia dago. - Zuzentasun akats bat dago. - Ikerketaren faseak argi erakusten dira 	<ul style="list-style-type: none"> - Oso bisuala da: ikusi orduko, ideia nagusiak identifikatzen dira. - Informazio kopuru oso egokia da. - Zuzentasun akatsik ez. - Ikerketaren faseak argi erakusten dira
ORIGINALTASUNA	<ul style="list-style-type: none"> - Diseinua ez da batere landu. - Ideia propiorik ez da txertatu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Diseinu nahiko soila egin da. - Oso ideia propio gutxi txertatu dira. 	<ul style="list-style-type: none"> - Diseinua landu egin da. - Ideia propio batzuk txertatu dira. 	<ul style="list-style-type: none"> - Diseinua sakon landu da. - Ideia propioen presentzia handia.
BALIO GEHIGARRIA	<ul style="list-style-type: none"> - Erreferentziarik ez du eranstean. - Irudi-bideorik ez ditu eranstean. 	<ul style="list-style-type: none"> - Erreferentziaren bat eranstean du. - Irudi-bideoren bat eranstean du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Oinarrizko erreferentziak eranstean ditu. - Irudi-bideoren bat eranstean du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Erreferentzia guztiak eranstean ditu. - Irudi-bideoak eranstean ditu.
AHOZKO AURKEZPENA ZUZENTZEKO ERRUBRIKA				
	GU-1	NA-2	O/00-3	BI-4
AHOZKO TESTUAREN EGOKITASUNA ETA	<p>Hizlari rola</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez dira edukiak eta hitzaldiaren atalak era argian antolatu eta lotu. 	<p>Hizlari rola</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez dira edukiak eta hitzaldiaren atalak era guztiz argian lotu. 	<p>Hizlari rola</p> <ul style="list-style-type: none"> - Edukiak eta hitzaldiaren atalak era argian antolatu eta lotu dira. 	<p>Hizlari rola</p> <ul style="list-style-type: none"> - Edukiak eta hitzaldiaren atalak oso era argian antolatu eta lotu dira.

<p>ANTOLAKET A</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Irekiera/itxiera atalak ez dira egokiak/ez daude. - Hizketa txanden trantsiziorik ez da egin. - Testu banaketa oso desorekatua izan da. - Euskarri bisuala eta eman zaion erabilera ez dira egokiak. <p>Entzule rola</p> <ul style="list-style-type: none"> - Galdera desegokia egin da. - Eten desegokia eragin da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Irekiera/itxiera atalek osagai batzuk falta dituzte. - Hizketa txanden trantsiziorik apenas egin da. - Testu banaketa pixka bat desorekatua izan da. - Euskarri bisualari eman zaion erabilera ez da guztiz egokia. <p>Entzule rola</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez da galderarik egin. - Galderaren edukia egokia da baina formalki desegokia. - Ez da etenik eragin. 	<ul style="list-style-type: none"> - Irekiera/itxiera atalak egokiak dira. - Hizketa txanden beharrezko trantsizio guztiak egin dira. - Testu banaketa orekatua izan da. - Euskarri bisuala eta eman zaion erabilera egokiak dira. <p>Entzule rola</p> <ul style="list-style-type: none"> - Galdera egokia egin da. - Ez da etenik eragin. 	<ul style="list-style-type: none"> - Irekiera/itxiera atalak egokiak dira. - Hizketa txanden beharrezko trantsizio guztiak egin dira. - Testu banaketa orekatua izan da. - Ahozko baliabide aberatsak erabili dira diskurtsoa edertzeko/interesa pizteko/arreta bereganatzeko. - Euskarri bisuala eta eman zaion erabilera bereziki egokiak dira. <p>Entzule rola</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eztabaida sustatzen duen galdera egokia egin da edo/eta gaiari lotutako informazio interesgarria ekarri da. - Ez da etenik eragin.
<p>HITZEZKO ADIERAZPENA ETA AHOTSA</p>	<p>Hizlari rola</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez zaio ahotsaren proiektzioa espazioari egokitu. - Hizketa-erritmoa ez da egokia edo/eta makulu asko erabili da. - Ahoskera ez da argia. - Erregistroa ez da egokia. - Diskurtsoari koherentzia eta kohesioa emateko elementu lexikorik ez da erabili/gaizki erabili dira. <p>Entzule rola</p> <ul style="list-style-type: none"> - Galdera eta txanda-hartzeak ez dira egokiak izan (ahotsaren, erregistroaren nahiz zuzentasunaren aldetik). 	<p>Hizlari rola</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez zaio beti ahotsaren proiektzioa espazioari egokitu. - Hizketa-erritmoa ez da guztiz jariatua. - Ahoskera argia da gehienetan. - Hizkera ez da egokiena. - Diskurtsoari koherentzia eta kohesioa emateko elementu gutxi erabili dira. - Hizkuntzaren zuzentasun mailan arazo puntualak daude. <p>Entzule rola</p> <ul style="list-style-type: none"> - Galdera eta txanda-hartzeak ez dira egokiak izan (ahotsaren aldetik). 	<p>Hizlari rola</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ahotsaren proiektzioa espazioari egokitu zaio. - Hizketa-erritmoa jariatua da. - Ahoskera argia da. - Erregistroa eta hizkera egokiak dira. - Diskurtsoari koherentzia eta kohesioa emateko elementu lexikoak erabili dira. - Hizkuntzaren zuzentasun maila egokia da. <p>Entzule rola</p> <ul style="list-style-type: none"> - Galdera eta txanda-hartzeak egokiak izan dira (ahotsaren, erregistroaren nahiz zuzentasunaren aldetik). 	<p>Hizlari rola</p> <ul style="list-style-type: none"> - Tonu aldaketak baliatu dira hizketa adierazkorra egiteko. - Tempo aldaketak baliatu dira egoki gertatu denean. - Erregistroa eta hizkera egokiak dira. - Diskurtsoari koherentzia eta kohesioa emateko elementu lexikoak erabili dira. - Hizkuntzaren zuzentasunaz harago, diskurtso aberatsa osatu da (sinonimoak, esaldi-egitura tartekatua e.a.). <p>Entzule rola</p> <ul style="list-style-type: none"> - Galdera eta txanda-hartzeak egokiak izan dira (ahotsaren,

				erregistroaren nahiz zuzentasunaren aldetik).
GORPUTZ AREN ZEINU BISUALAK ETA ESPAZIOA	<p>Hizlari rola</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez da begirada komunikaziorako behar bezala erabili. - Keinu adaptatzaileak sarri egin dira. - Ez dira keinu ilustratzaileak egin. <p>Entzule rola</p> <ul style="list-style-type: none"> - Entzutea aktiboa ez dela adierazten duten zeinu bisualak egon dira. -Txanda-hartzeetarako zeinu bisualekin lotutako jarraibideak ez dira errespetatu. 	<p>Hizlari rola</p> <ul style="list-style-type: none"> - Begirada komunikaziorako behar bezala erabili da, salbuespenak salbuespen. - Keinu adaptatzaileak saihesteko estrategiak baliatu dira. - Keinu ilustratzaile gutxi egin dira. <p>Entzule rola</p> <ul style="list-style-type: none"> - Entzutea aktiboa dela adierazten duten zeinu bisualak egon dira. 	<p>Hizlari rola</p> <ul style="list-style-type: none"> - Begirada komunikaziorako behar bezala erabili da uneoro. - Keinu ilustratzaileak baliatu dira. - Espazioan egindako mugimendua baliatu da komunikazioa optimizatzeko. <p>Entzule rola</p> <ul style="list-style-type: none"> - Entzutea aktiboa dela adierazten duten zeinu bisualak egon dira. 	<p>Hizlari rola</p> <ul style="list-style-type: none"> - Begirada komunikaziorako behar bezala erabili da uneoro. - Keinu ilustratzaileak baliatu dira. - Espazioan egindako mugimendua baliatu da komunikazioa optimizatzeko. - Espazioa komunikazio ekintzarako egokitu da. <p>Entzule rola</p> <ul style="list-style-type: none"> - Entzutea aktiboa dela adierazten duten zeinu bisualak egon dira.

8.2. KO-EBALUAZIOA

K3 LAN INTERDIZIPLINARRAren KO-EBALUAZIOA

TALDEAREN IZENA: TALDEAREN IZENA
TALDEAREN ORDEZKARIA: IKASLEAREN IZENA (ikaslearenizena@ikasle.ehu.eus)

Taldekie guztion artean baloratu behar duzue kide bakoitzaren lana eta ekarpenak egindako lanean. Taldekide bakoitzari eskainitako kalifikazioa eta horren sinadura jasoko duzue jarraian duzuen taulan. Norbanako baikitari eskainitako kalifikazioaren justifikazioa idatziko duzue jarraian.

	0-10 puntu bitarteko eskainitako kalifikazioa	Ikaslearen sinadura
1. TALDEKIDEA Izen-abizenak: Posta elektronikoa:		
2. TALDEKIDEA Izen-abizenak: Posta elektronikoa:		
3. TALDEKIDEA Izen-abizenak: Posta elektronikoa:		
4. TALDEKIDEA Izen-abizenak: Posta elektronikoa:		

Kalifikazioen justifikazioa

--

8.3 TALDE KONTRATUA

LAN TALDE KONTRATUA

TALDEAREN IZENA: TALDEAREN IZENA TALDEAREN ORDEZKARIA: IKASLEAREN IZENA (ikaslearenizena@ikasle.ehu.eus)

1. TALDEKIDEA Izen-abizenak: Posta elektronikoa:
2. TALDEKIDEA Izen-abizenak: Posta elektronikoa:
3. TALDEKIDEA Izen-abizenak: Posta elektronikoa:
4. TALDEKIDEA Izen-abizenak: Posta elektronikoa:

ARAUAK: Taldearen funtzionamendua errazteko taldekide guztiek onartu eta bete beharko dituzten arauak zehaztu behar dituzue. Arau hauek ko-ebaluazioan agertzen diren irizpideetan oinarritu beharko dira. 1. 2. 3. 4. etab.
ARAU APURKETAK: Onartutako arauak ez betetzeak ekarriko dituen ondorioak ko-ebaluazioan eta taldeko kudeaketan. 1. 2. 3.